

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

2665

84/2020 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko, jokoaren sektoreko presako neurriei buruzkoa.

Osasunaren Mundu Erakundeak joan den martxoaren 11n COVID-19ak eragindako nazioarteko pandemia deklaratu ondoren, haren hedapen azkarrak, bai Espainian bai nazioartean, premiazko neurri sendoak hartzeko beharra eragin du, aurrekaririk gabeko krisi horren eragina arintzeko, erakunde-maila guztietan, bai birusaren hedapenari eusteari dagokionez, bai ekoizpen-ehunari laguntzeari dagokionez.

Pandemiaren hedapena dela eta, agintariek bertan behera utzi behar izan dituzte joko presentzialari eta joko-lokal mota guztien itxierari buruzko jarduerak, baita joko-makinak egon daitezkeen ostalaritza-lokalenak ere. Jokoaren plangintza erabat berrikustean gertatzen da hori. Gobernu Kontseiluaren 2020ko urtarrilaren 14ko Erabakiaren ondorioz hasi zen berrikusten. Erabaki horren bidez, Jokoaren Erregelamendu Orokorrean jasotako plangintza berrikusteko prozedura ezartzen da. Erregelamendu hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren urtarrilaren 14ko 7/2020 Ebazpenaren bidez argitaratu zen (2020ko urtarrilaren 17ko EHAA, 11. zk.). Plangintzaren berrikuspena bederatzi hilabeteko epean onartu behar zen, eta interes publikoko arrazoiengatik luzatu ahal izango zen.

Erabaki horretan, halaber, jokoaren plangintzaren berrikuspenera irauten zuen bitartean baimen berriak emateari uzteko neurria hartu zen, horrek sektorearen arrazionalizazioari eragin ez ziezaiola plangintza eta araudi aplikagarria berrikusi, egin eta aldatzeko aldian.

Jokoari buruzko plangintzaren berrikuspenera Jokoaren Euskal Behatokiak alde aurretik egingadako azterlanetan eta ekintza-plan baten ildo estrategikoetan oinarritzen zen. Horiek pandemiak gizaratean eta ekonomian duen eraginaren eta alarman joko presentzialeko jarduerak oro legez etetearen aurreko errealitate bati erantzuten zioten. Hala ere, gaur egun ezinezkoa da EAEn jokoaren plangintza koherente eta egoki bat egitea datozen urteetarako, aipatutako inpaktua kontuan hartu gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da Gobernu Kontseiluaren erabaki horretan ezarritako epea beste bederatzi hilabetez luzatzea, sektorearen etorkizuna datu eguneratuekin aztertzeko.

Bestalde, pandemiak eta joko presentzialaren jarduerak geldiarazteak joko-makinen ustiapen-baimenak modu faktikoan etetea ekarri dute. Baimen horiek joko-makina bat, terminal bat edo makina laguntzaile bat ustiatzeko baimena ematen dute, aurrez aurreko establezimendu mota batean instalatuta, dagokion modeloaren homologazioa egiaztatu ondoren.

Ezinbesteko arrazoi horrek, baimen horiek aldi baterako legezko eraginkortasunik gabe uzteak, segidako traktuko edo funtzionamenduko baimen bat eteteko berehalako arrazoia dakar, eta horren baldintzak aldatu egin daitezke baimenaren indarraldian edo arau-aldaketengatik, araudiak kasuistikoki baimen horiek aldi baterako etetea aurreikusten duen beste kasu batzuen antzera, zehapena dela medio; administrazio-erabakia da baimena erabiltzea debekatzea baimenaren indarraldia amaitu arte. Nork bere borondatez egoera honetara igarotzea: oro har, zerga-araudiak ez du ustiapen-baimena zergapetzen hura aktibo ez dagoenean; kasu horretan, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatzen da, baimena ematen denetik edo baja eman, eten edo errebokatzen den arte.

Hori kontuan hartuta, eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, alarma-egoera indarrean jartzen denetik urteko hirugarren hiruhilekoaren amaierara arte (Jokoa Arautzeko Agintaritzak luza dezake, interes publikoko arrazoiek bere horretan jarraitzen badute) ustiapen-baimena aldi baterako etetea aurreikusi behar da, bai alarmatik eratorritako murrizketak kentzeko, bai berreskuratu ahal izateko. Lege hau berrezartzeko baldintzak hala ere, alderdi interesdunek etendura kentzeko eskatu ahal izango dute aldez aurretik, ezinbesteko arrazoia lehenago desagertzen bada.

Azkenik, arrazoi berberengatik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzen denetik (COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena) eta Gobernu Kontseiluak jokoaren plangintza berria onartzen duen egunera arte, ez da aplikagarria Erregelamendu Orokorren 201.5.a) artikuluan jasotako betebeharra, apustu-enpresak gutxienez zortzi lokal etengabe funtzionamenduan edukitzera behartzen dituen.

Ondorioz, Segurtasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko ekainaren 30ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– COVID-19 pandemiak eragindako joko-makinen ustiapen-baimenak.

1.– Aldi baterako etenda egongo dira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena, indarrean jartzen den egunean ustiatu edo eteteko zain ez dauden joko-makinak ustiatzeko baimenak, egun horretatik 2020ko irailaren 30era arte. Epe hori beste hiruhileko batez luzatu ahal izango du Jokoa Arautzeko Agintaritzak, interes publikoko arrazoirik badago.

2.– 1. paragrafoan aurreikusitako arrazoiagatik etenda dauden joko-makinen ustiapen-baimenek ez diote eragiten BH motako joko-makinen kasuan ustiatu zain dagoen enpresa batek izan ditzakeen baimenen % 10ari.

3.– Kokatze-buletina indarrean duten BH motako joko-makinak ustiatzeko baimenen kasuan, buletinaren sinatzaileetako edozeinek eskatu ahal izango du etendura kentzea, 1. paragrafoan aurreikusitako epea baino lehen, makinak kokatuta dauden establezimenduaren jarduera hasten den unean.

4.– Joko-makinak ustiatzeko gainerako baimenetan, ustiapen-baimenen titularrak etenaldia kentzeko eskatu ahal izango du, 1. zenbakian aurreikusitako epea baino lehen, ezinbesteko kasu hori edozein unetan desagertu delako.

2. artikulua.– COVID-19 pandemiak eragindako apustu-lokalak.

Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 201.5.a) artikuluan xedatutakoa, funtzionamendu iraunkorreko apustu-lokalen gutxienerako kopuruari dagokionez, ez da beharrezkoa martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik (COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena), eta Gobernu Kontseiluak jokoaren plangintza berria onartu arte.

2020ko uztailearen 8a, asteazkena

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Jokoaren plangintza berrikusteko epea luzatzea.

Beste bederatzi hilabetez luzatzen da Gobernu Kontseiluaren 2020ko urtarrilaren 14ko Erabakian jasotako epea, jokoaren plangintzaren berrikuspena onesteko, zeina Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren urtarrilaren 14ko 7/2020 Ebazpenaren bidez argitaratu baitzen (2020ko urtarrilaren 17ko EHAA, 11. zk.), erabaki horretan aurreikusitako ondorio guztiekin, berriak eteari dagokionez.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 30ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.